



**BALLONTI - LAS CARRERAS EROANBIDEA BIKOIZTEKO OBRA KONTRATATZEKO
ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIAREN KARATULA. ESPEDIENTE-ZK.: 3201**

Erregulazio harmonizatuko kontratua	☒ BAI ☐ EZ
Espedientea izapidetzea	☒ Ohikoa, ☐ Urgentea, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Ireki sinplifikatua (SPKLren 159.1 art.) ☐ Ireki super sinplifikatua (SPKLren 159.6 art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☒ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidentea ☐ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Jose Carlos Gimeno Gimeno
4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:	www.contratacion@consorciodeaguas.eus Administrazio/teknika arloko kontsulta: 944 873 100
5.- Kontratatzailearen profila:	https://www.consorciodeaguas.eus/eu/ https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea: Ballonti - Las Carreras eroanbidea bikoizteko obra.

2.- Zer beharri erantzun behar zaion: Obra-kontratuaren xedea eroanbide berri bat egitea da, Ballontiko balbula-gelaren eta Las Carrerasko deposituaren inguruaren arteko egungo hornidura-sare primarioaren garraio-gaitasuna handituko duena. Eroanbide horrek funtzio bikoitza beteko du:
- Egoera normalean, Zadorra sistematik ura hornitzea Enkarterri eskualdera, Petronorrera eta ingurune industrialera. - Larrialdi-egoeretan (lehortea, Zadorratik Arratiara ura eramatearen funtzionamendu okerra, Beteluriko EUT matxuratzea edo mantentzea...) alderantzizko noranzkoan funtzionatzeko aukera izatea, Ordunteko eta Cadaguako sistemetatik hornidura Enkarterrira ez ezik, Portugaletera eta ezker aldeko eta eskuinaldeko beste udalerrri batzuetara eramatea ere ahalbidetuz, bermearekin eta kalitatearekin.

3.- Loteka banatzea: ☐ Bai ☒ Ez

Loteka ez banatzearen justifikazioa: Kontratu honen exekuzioa ez dago bakarrik diametro handiko (DN2500mm) zenbait tinkatze egiteak dakarren konplexutasun teknikoaren eta ziurgabetasunaren mende: horrez gain, nabarmen zailtzen da dentsitate handiko hiri-ingurune oso garatu batean kokatzen delako, izan ere, hango azpiegitura eta zerbitzuek baldintzatzaile ugari dituzte (A8 autobidea, Trianoko trenbidea, linea elektrikoak, DN600 mm-ko hornidura-eroanbidea...). Baldintzatzaile horiek espazioaren erabilgarritasuna eta irisgarritasuna mugatzen dute, bai eta administrazio ugari (BFA, URA, Ortuellako Udala, industrialdeak...) ezarritako baldintzak betetzea ere. Horregatik guztiagatik, kudeaketa zentralizatua behar da interferentziak ez egoteko eta lanak behar bezala egiten direla bermatzeko. Horri dagokionez, kontratua lotetan zatitzeak eta hura kontratista ugari exekutatzeak deskoordinazio-arrisku handia eragingo luke (sarbide komunak...), bai eta bikoiztasun administratiboak ere, eta, ondorioz, proiektuaren bideragarritasun teknikoa ere arriskuan egongo litzateke.

4.- CPV:



B.- KONTRATUAREN XEDEA

- 45232150-8 Urak banatzeko hoditeriekin lotutako lanak
- 45221200-4 Tunelak, putzuak eta lurpeko pasabideak eraikitze lanak

5.- Aldaeren edo alternatiben onargarritasuna: ☐ BAI ☒ EZ

6.- Izaera juridikoa

☒ Administratiboa ☐ Pribatua

C.- KONTRATUAREN PREZIOA

1.- Lizitazio-aurrekontua
(BEZik gabe)

HOGITA HAMAIIA MILIOI ZORTZIEHUN ETA HIRUROGEITA HAMABI MILA SEIEHUN ETA BERROGEITA BI EURO ETA BERROGEITA HAMAHIRU ZENTIMO (31.872.642,53 EURO), BEZik GABE.

2.-Kontratuaren balio zenbatetsia: 31.872.642,53 euro
Loteak: ☐ BAI ☒ EZ

3.- Prezioa zehazteko sistema:

☐ Honenbesteko prezioa ☒ Prezio unitarioak

4.- Urteko ordainketak eta aurrekontu-kontsignazioa:

Kontratuaren aurrekontuko urteko ordainketak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa: 452,15-601,11

- 2026. urtea: 4.000.000,00 €
- 2027. urtea: 16.000.000,00 €
- 2028. urtea: 11.872.642,53 €

5.- Prezioen berrikuspena:

☒ BAI ☐ EZ

Aplikatu beharreko formula:

Kontratuari aplikatzekoa izango zaio **1359/2011 Errege Dekretua**, urriaren 7koa, Administrazio publikoen armamentua eta ekipamendua fabrikatzeko hornidura-kontratuen eta obra-kontratuen prezioak berrikusteko oinarritzko materialen eta formula-eredu orokorren zerrenda onesten duena. Horregatik, Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorraren (APKLEO) 104. artikuluan («Prezioak berrikusteko prozedura») eta Administrazio publikoen ekipamendua eta armamentua fabrikatzeko hornidura-kontratuen eta obra-kontratuen oinarritzko materialen zerrenda eta prezioak berrikusteko formula orokorrak onartzeko urriaren 7ko 1359/2011 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera aplika daitezkeen formulak identifikatzeko, eta obren ezaugarriak kontuan izanik, 1359/2011 Errege Dekretuaren II. eranskinean ezarritako formuletako egokienak jarraian adierazitakoak dira:

Mikrotunelak proiektuaren aurrekontuaren 2. kapituluko 2.5 azpikapitulua (3. tinkatzea), 2.7 azpikapitulua (5. tinkatzea) eta 2.9 azpikapitulua (7. tinkatzea).

- **ERREPIDEETAKO OBRAK. 181. formula. Tunelagailuz exekutaturako tunelak.**



C.- KONTRATUAREN PREZIOA

$Kt = 0,01Bt / B0 + 0,08Ct / C0 + 0,16Et / E0 + 0,02Pt / P0 + 0,02Qt / Q0 + 0,07Rt / R0 + 0,12St / S0 + 0,02Tt / T0 + 0,01Ut / U0 + 0,49$

Aurrekontuaren gainerakorako:

- **OBRA HIDRAULIKOAK 561. formula.** Siderurgiako metalen, zementuaren eta arroka eta agregakinen eduki handia. Tipologia adierazgarrienak: Hornidurarako eta saneamendurako instalazioak eta eroanbideak.

$Kt = 0,10Ct / C0 + 0,05Et / E0 + 0,02Pt / P0 + 0,08Rt / R0 + 0,28St / S0 + 0,01Tt / T0 + 0,46$

Prezioak berrikusteko formuletan, "t" azpiindizearekin adierazten dira kontratuaren exekuzioaldiari dagokion hileko material bakoitzaren prezioen indizeen balioak, bai eta formulatik lortutako Kt berrikuspen-koefizientearen ere, eta "0" azpiindizearekin irudikatzen dira, bestalde, 9/2017 Legearen 103. artikulua 4. apartatua aipatutako datan material bakoitzaren prezioen indizeen balioak.

6.- Finantzaketa kanpoko funtsekin:

☐ BAI ☒ EZ

7.- Ordaintzeko modua: Arrunta, hileko ziurtagiri bidez.

8.- Konturako ordainketak: Ez da aplikatzen

D.- KONTRATUAREN EPEA

1.- Iraupen osoa: HOGEITA HAMAR (30) HILABETE.

2.- Epe partzialak.

☐ BAI ☒ EZ

3.- Luzapena

☐ BAI ☒ EZ

4.- Bermealdia: URTEBETE (01).

5.- Kontratua exekutatzeko tokia: Ballonti - Las Carreras

6.- Lanak zatika jaso daitezke ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK

☒ Behin betiko bermea: % 5

Zenbatekoa: Adjudikazioa

☐ Berme osagarria:

Zenbatekoa:

F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Ez da aplikagarria



G.- GAITASUN TEKNIKO ETA PROFESIONALA

Ez da aplikagarria

BALIABIDEEN ADSKRIPZIOA

Obraburu bat, gutxienez 10 urteko esperientzia duena antzeko obretan eta, halaber, kontratistaren ordezkari gisa ere jardungo duena.

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☒ Bai ☐ Ez

Eskatu beharreko taldea, azpitaldea eta kategoria: **E taldea (Hidraulikoak) 1 azpitaldea (Hornidurak eta saneamenduak) 6. kategoria**

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK

1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.

2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen mende dauden irizpideei buruzko dokumentazioa.

3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzeko irizpideei buruzko dokumentazioa.



a) Memoria teknikoa eta exekuzio-metodologia (23 puntu)

Proiektuaren azterketa

Lizitatzailleak proiektuaren azterketa bat egingo du, bai eta proiektuaren dokumentazioari buruzko ondorioen zerrenda bat eratu ere, horri buruzko ezagutza-maila adierazteko. Horrez gainera, haren garapenean eragina izan lezaketen kanpoko baldintzatzaileen azterketa baloratuko da, baita lizitatzailleak kontraturako garrantzitsutzat jotako beste edozein inguruabar ere. Besteak beste, hirugarrenen gaineko erasanak minimizatzeko azterketa baloratuko da, bai eta honako hauei lotutakoak ere: errekak, baso autoktonoko landaredia edo zuhaixka-landaredia, errepideak, trenbideak, ur-eroanbideak eta obrek erasandako beste edozein zerbitzu mota.

Obra-exekuzioaren azterketa

Obran aurreikusitako jarduketa nagusietako bakoitzean, obra exekutzeko eta/edo proposaturiko soluzioari ekiteko modu teknikoa aztertuko da, teknologia xehatuta, bai eta beharrezko eraikuntza-prozesuak ere, jarduketa bakoitza gauzatzean gaintitu beharreko zailtasunak identifikatzeaz gainera: kokapena, ezarpena, instalazio osagarriak, metaketak, obrarako sarbideak, existitzen diren zerbitzuen erasana, etab. Horretarako proposatutako metodoak eta bitartekoak ere zehaztu egingo dira. Zehazkiago, hauek exekuzioa xehatu beharko da:

- Zangan hodia jartzea, kokalekuen arabera: belardiko zatia egitea, Abra industrialdea, zerbitzuan dagoen hornidura-hoditeriaren (DN 600 mm) gaineko eragina, ibilguak eta bideak gurutzatzea.
- Zulaketa horizontala, altzairuzko hodiaren tinkatzearekin: sarrerako eta irteerako putzuak ezarri eta egitea, zulaketa egitea eta barnean eroanbide guztiak ipintzea.
- Mikrotunelak (Dint 2500 mm): sarrerako eta irteerako putzuak ezarri eta egitea, mikrotunela egitea, barnean eroanbide guztiak ipintzea.
- Ballontiko ardatzeko gurutzagunean dagoen galeriatik igarotzea. Barruan eroanbideak jartzea.
- Obra berezia: deribazioa (Preventorio eta Basurto)

b) Obrarako jarriko diren bitartekoak eta lanen programazioa (22 puntu)

Obran erabilgarri dauden bitartekoak

Obrarako proposatutako antolamenduaren organigrama eta deskribapen funtzionala aurkeztuko dira, obrari esleituko zaion ekipoa eta haren dedikazioa zehaztuta eta ekipoaren kualifikazioa eta esperientzia adierazita. ABEEen kasuan, argi eta garbi zehaztu beharko da eginkizunen banaketa enpresa parte-hartzaileen artean.

Proposatutako ekipoen zerrenda xehatuko da, horien kopurua eta dimentsionamendua zehazteaz gainera eskulanari eta makineriari dagokionez, bai eta horien jabetza eta obran erabiltzeko konpromisoak ere, ondo funtsatuta betiere.

Lizitatzailleak lanen zati bat hirugarrenekin itundu beharra aurreikusten badu, horien izena, erreferentziak eta aurrekontu osoan izango duten ehunekoa adierazi beharko ditu, konpromiso-gutunez gainera, bai eta enpresa-profila edo sailkapena ere.

Laburpen-taula bat aurkeztuko da obran hornitu beharreko materialen eta mekanismoen –batik bat, obrarako funts-funtsezkoak direnen– zerrendarekin, marka eta eredua zehaztuta.

- Burdinurtuzko hodiak eta piezak, fabrikatzaile berak hornitu beharko dituenak (*)
- Balbula eta eragingailu guztiak.

(*) Burdinurtu harikorreko hodiak eta piezek obra honen eraikuntza- eta ustiapen-jardueran duten garrantzia kontuan hartuta, lizitatzailerak berak proposatutako materialerako jarraian aipatutako dokumentuak aurkeztu beharko ditu, berariaz, eranskinaren azpialal espezifiko batean.

- Kalitatea kudeatzeko sistemaren ISO 9001.2008 ziurtagiria, enpresa fabrikatzailearen eta enpresa hornitzailearen izenean (ez bada enpresa bera), Europako entitate akreditaziodun batek emana.
- Ur-kanalizazioetarako burdinurtu harikorreko hodi, errakore eta osagarrietarako EN 545.2010 araua betetzen dela egiaztatzeke ziurtagiria, Europako entitate akreditaziodun batek emana.
- ISO 14001.2004 ingurumen-kudeaketako ziurtagiria, Europako entitate akreditaziodun batek emana.
- EN 545 arauak exijitutako loturen prestazioen saiakuntzak egin izanaren ziurtagiria.
- 2.2 fabrikazio-ziurtagiria, EN 10204 arauaren arabera
- Edateko urarekin kontaktuan dauden produktu guzti-guztien osasun-adostasunaren ziurtagiriak, Europako araudiaren arabera (Frantzia, Alemania, Herbehereak, etab.) eta Europako erakunde ziurtagiri-emaita batek emana.
- Hodien barne-estalduran erabilitako zementuaren UNE EN 197-1 arauaren adostasun-ziurtagiria.
- Elastomero-junturei buruzko UNE EN 681-1.1996 araua betetzen dela egiaztatzeke ziurtagiria, Europako entitate akreditaziodun batek emana.
- Europar Batasunaren barruan, EN 545 produktu-arauan oinarritutako proiektuaren zehaztapenetan aurreikusitako kalitate-kontrolako probak egiteko instalazio egokiak dituela egiaztatzeke ziurtagiria, hodiaren fabrikatzailearena.
- Garraio-sistema (fabrikazio-puntutik obrarainoko garraioa, han erabiltzeko), hura definituz eta estalduraren propietateak eta itxura babestuz, nola barrualdetik, hala kanpoaldetik.
- UNE 545 arauak exijitutakoak baino irizpideak baino handiagoak deskribatzen dituen beste edozein dokumentazio, bereziki hodien trazabilitateari dagokionez.

Obraren plangintza orokorra eta lan-programa:

Koherentzia baloratuko da obretarako egindako planteamendu orokorrean, obren kokapena eta obrak exekutatzeke proposatutako bitartekoak kontuan hartuta. Lan-programazio bat ere sartuko da, obran erabilgarri jarritako ekipo eta bitartekoen arabera behar bezala justifikatuta egonik proposatutako errendimenduekiko koherentziari eusten diona betiere. Bereziki, honako hauek baloratuko dira:

- Xehetasun-maila jardueren definizioan eta koherentzia horien sekuentzian hainbat obra-lan exekutatzeke dagokionez.
- Ekipoei esleitutako errendimenduen definizioa eta zehaztutako jardueren gutxi gorabeherako iraupen errealearen justifikazioa.
- Gantten diagramaren medioz irudikatutako obra-planaren zehaztapena, bai eta bide kritikoaren eta lasaiera-sorkuntzaren azterketarena ere.

EZ ZAIKO PUNTURIK EMANGO EXEKUZIO-EPEA MURRIZTEARI

c) Ingurumen- eta gizarte-irizpideak (5 puntu)

Ingurumen-irizpideak (3 puntu). Honela baloratuko da:

- 2 puntu: Gehienez 2 puntu obrak dirauen bitartean garatu beharreko prozedura- eta baliabide-proposamenei, baldin eta obraren ezaugarri eta berezitasunetara egokituta badaude, jomuga lanak exekutatzean ingurumen-inpaktuen prebentzioa eta minimizazioa bermatzea izanik. La Bárcena errekaaren pasabidea nola exekutatuko den aztertu beharko da.
- 1 puntu: Gehienez 1 puntu obrako hondakin guztien % 70 baino gehiago balorizatzea bermatzen duten proposamenei. Horretarako, Hondakinak Kudeatzeko Planaren aurrerapen gisa, taula bat jaso beharko da, obran sortuko diren hondakinak (aurreikuspenen arabera), horien kopuruak eta aurreikusitako tratamendu-eragiketa (balorizazioa/ezabaketa) adierazita.

Irizpide sozialak (2 puntu) Kontratua exekutatzen duten langileei aplikatutako berdintasun-neurriak. Gehienez ere 2 puntu emango dira:

- Kontratua exekutatzen duten langileei berdintasun-esparruan emandako prestakuntza, informazioa eta sentsibilizazio-kanpainak.

Dokumentazio teknikoaren gehieneko edukia 10 DIN A4 orrialdekoa izango da obra-exekuziorako Laburpen Exekutiborako, 75 DIN A4 orrialde Memoria Teknikorako, 30 DIN A4 orrialde Obraren eskura dauden bitartekoak eta Lanen Programa apartaturako eta 10 DIN A4 orrialde Ingurumen- eta gizarte-neurrietarako, karaktereen gutxieneko tamaina Microsoft Wordko '11' Arial izango da, eta ordena logiko bati jarraikiz zenbakitu beharko dira. Salbuespen gisa, DIN A1 eta DIN A3 orriak sartu ahalko dira, aurkezteko formatu horiek behar dituzten dokumentuetarako. Orrien guztizko zenbaketaren ondoretarako, ez dira kontuan hartuko ez azalak ez aurkibideak, ez eta obrari esleitutako taldearen kualifikazioa eta esperientzia egiaztatzen duen dokumentazioa ere (informazio hori eranskin batean erantsi beharko da, bereiz). Ingurumen-irizpideak baloratzeko, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko dira; behar bezala eguneratuta egon eta haren irismena bildu beharko dute ziurtagiriok.

Lehen zehaztutako kondizioak betetzen ez badira, eskaintzailearen balorazioa penalizatu egingo da; ezarritako mugak gainditzen dituen orri bakoitzeko, eskaintza teknikoaren balorazioaren puntuazioa 0,05 puntu murriztuko da.



AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

Proposamen ekonomikoa, lizitatzailleak edo haren ordezkariak sinatua, I. eranskin gisa bildutako ereduaren arabera idatzia ezinbestean, eskaintako prezioan zerga guztiak barne hartuta daudela, BEZa izan ezik.

Proposamen ekonomikoa honako hauekin osatuko da:

a) Prezioen zerrenda.

- Proiektua osatzen duten unitate guztien exekuzio materialaren prezio unitarioen zerrenda, letraz eta zenbakiz idatzita.

Unitatearen zuzeneko kostuari % 7 gehituz lortuko dira prezio horiek, zeharkako kostu gisa.

Enpresa lehiatzaileak konpromisoa hartuko du, adjudikaziodun izanez gero, Prezioen 2. Taula eratzeko, bere eskaintzan agertzen den prezio unitarioen zerrendan oinarrituta, dokumentu horren helburuetarako egokia den egitura batekin. Azkenik, obren zuzendaritzari aurkeztuko zaio, Zuinketaren Egiaztapenaren Akta sinatu eta lehen hilabetea amaitu baino lehen.

- Aurkeztutako prezio unitarioak kalkulatzeko erabilitako eskulanen, makinen eta materialen oinarritzko prezio unitarioen zerrenda.

b) Kontratuaren aurrekontua.

- Exekuzio materialerako aurrekontua, enpresa lehiatzaileak eskaintako prezio unitarioak lizitazio-proiektuaren neurketei aplikatzean oinarrituta egina. Aurrekontu hori PRESTO programan gauzatu beharko da, eta paperezko edizioaz gain, euskarri magnetikoko bertsio bat ere aurkeztu beharko da. Aipatutako programak ez izanez gero, BC3 formatuan aurkeztea ere onargarria izango da.
- Obra-exekuziorako aurrekontua, exekuzio materialerako aurrekontuari «Gastu Orokorrak eta Onura Industrialak» kontzeptua (% 19) aplikatzearen ondoriozkoa.

I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzaillearen profilean adierazitakoa
 - 2.- Eskaintzak aurkezteko tokia (AKPAren 13. klausulan ezarritakoa ez beste bat bada soilik):
 - 3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztu behar dira ☒ BAI ☐ EZ
- Eskaintza elektronikoki aurkezteko plataforma elektronikoen helbidea:
<https://contratacion.consortiodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA/ADITUEN BATZORDEA

☒ Kontratazio-mahaia

Lehendakaria/Ordezkoa:
Ekaitz Mentxaka Corral.

Kideak (Titularrak/Ordezkoa):
Mikel Magunazelaia Pinaga.
Xabier Orue Moro.



J.- KONTRATAZIO-MAHAIA/ADITUEN BATZORDEA

Itziar Zarate Urrutia.
Gerardo Latorre Pedret.
Jose Manuel Pereda Renobales.

Idazkaria (Titularra/Ordezkoa):
Gerardo Latorre Pedret.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Baloratu beharreko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarri izan behar duten irizpideak honako hauek dira:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Irizpide honetan 50 puntu emango dira gehienez.

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekoez (Bi) proportzioan baloratuko dira honako balio hauek esleituko dituzten formula matematikoen bidez:

Bmax	50 puntu
$(B_{max} + BBB) / 2$	48 puntu
BBB	47 puntu
$0,8 \times BBB$	46 puntu
$0,6 \times BBB$	44 puntu
Lizitazio-aurrekontua	0 puntu

Puntu hauetako balioak aurretik zehaztutako K_1 koefizienteaz biderkatuko dira.

Non:

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa; lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko aldea zati lizitazio-aurrekontua eginda ateratzen den emaitza, ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko bajaren ehunekoa, eskaintzarik ekonomikoenari dagokiona.
- BBB: Batez besteko bajaren ehunekoa, lizitatzailerik bakoitzaren baja-ehunekoen batezbesteko aritmetikoaren emaitza.

Gainerako eskaintzen puntuazioa aterako da aurretik zehaztutako puntu-banaketa linealki interpolatuta. Hori horrela, Bi baja bakoitzari esleitutako P_i puntuazioa honako hau da:

Baldin eta $0 < Bi \leq 0,6 \times BBB$

$$P_i = \frac{Bi}{0,6 \times BBB} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BBB < Bi \leq 0,8 \times BBB$



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

$$P_i = 44 + \frac{(B_i - 0,6 \times BBB)}{0,2 \times BBB} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BBB < B_i \leq BBB$

$$P_i = 46 + \frac{(B_i - 0,8 \times BBB)}{0,2 \times BBB}$$

Baldin eta $BBB < B_i \leq (BBB + B_{max}) / 2$

$$P_i = 47 + \frac{(B_i - BBB)}{(B_{max} - BBB)} \times 2$$

Baldin eta $(BBB + B_{max}) / 2 < B_i \leq B_{max}$

$$P_i = 48 + \frac{(2 \times B_i - BBB - B_{max})}{(B_{max} - BBB)} \times 2$$

Formula hauen bidez lortuta P_i puntuazioaren emaitza guztiak aurretik zehaztutako K_1 koefizienteaz biderkatuko dira.

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

- Memoria teknikoa eta exekuzio-metodologia 23 puntu

- Proiektuaren azterketa
- Obra-exekuzioaren azterketa

- Obran erabilgarri dauden bitartekoak 22 puntu

- Obran erabilgarri dauden bitartekoak
- Obraren plangintza orokorra
- Lan-programa

- Ingurumen- eta gizarte-irizpideak 5 puntu

2.- Berdinketa hausteko irizpideak:

Eskaintza baten baino gehiagoren artean berdinketa jazoz gero, behean adierazitako irizpide sozialak aplikatuko dira berdinketa ebazteko, adierazitako hurrenkeran, eskaintzak aurkezteko epea amaitzean lizitatzailerak duen egoera kontuan izanik:



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

- a) Enpresetako plantilletatik desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena duena; berdinketa gertatuz gero, plantillan langile desgaitu gehien duena edo plantillan inklusio-neurrien bidez langile gehien duena.
- b) Plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duen enpresa.
- c) Plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena duen enpresa.
- d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

3.- Eskaintza anormalki txikitzat jotzeko irizpideak:

Eskaintza anormalki txikitzat joko da honako egoera hauetako batean badago:

- Baldin eta, lizitatzailerak bakarrik egonik, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino portzentajezko 25 unitate txikiagoa bada.
- Bi lizitatzailerak egonik, beste eskaintza baino portzentajezko 20 unitate txikiagoa dena.
- Hiru lizitatzailerak egonik, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Nolanahi ere, zenbatekorik handieneko eskaintza ez da kontuan hartuko batezbestekoa zenbatzeko, baldin eta batezbesteko bakarrik baino portzentajezko 10 unitate handiagoa bada, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Dena den, neurrigabetzat joko da portzentajezko 25 unitatetik gorako baja.
- Lau lizitatzailerak edo gehiago badaude, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Hala ere, haietako eskaintza batzuk batezbestekoa baino portzentajezko 10 unitate baino handiagoak badira, egoera horretan ez dauden eskaintzekin bakarrik egingo da batezbestekoa, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Nolanahi ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria zenbatekorik txikieneko hiru eskaintzen gainean kalkulatu da.

Talde bereko enpresek eskaintzak aurkezten badituzte, eskaintzarik txikiena baino ez da kontuan hartuko anormaltasun-presuntzioan dauden eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, alde batera utzita eskaintza bakarrik edo taldetik kanpoko enpresa batekin edo batzuekin batera, aldi baterako elkarturik, aurkeztu duten.

4.- Lizitatzailerari, hautespen-prozesuan jarraitzeko, eskatutako gutxieneko puntuazio-atalasea: Baztertzeko arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **25 puntu** gutxienez ez lortzea.

L.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO BALDINTZA BEREZIAK

PTPAn zehaztutakoak.

M.- ZEHAPEN ZEHATZAK

PTPAn adierazitako kasuak eta ekintzak.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatik erantzukizuneko aseguruia dagoelako egiaztagarria.
Administrazio-klausula partikularren agiriaren gehigarria. (VIII. eranskina)

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez da aplikagarria

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

☒ Hasieran ekarpena egiteko betebeharra ☐ Azpikontratazioaren mugak



P.- SUBROGAZIOA

Ez da aplikagarria

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

☒ BAI ☐ EZ

R.- BETEBEHARRAK KONTRATUA EXEKUTATU BITARTEAN

Obren zuzendaritza:

Partzuergoaren barnean eskumena duten zerbitzuek kontrolatu eta ikuskatuko dituzte lanak, Obra Zuzendaritzaren bitartez, zeinak ikuskatu, egiaztatu eta zaindu egingo baitu kontratatutako obra behar bezala gauzatzen dela, Administrazio Klausula Orokorren Agiriko 4. eta 24. klausuletan xedatutakoari jarraituz.

Obraren kartelak eta seinaleak

Enpresa adjudikaziodunak nahitaez osatu behar ditu Proiektuaren Laneko Segurtasun eta Osasun Azterlanean adierazitako elementuak, honako hauek adierazteko behar diren seinaleei dagokienez: obrarako sarbidea, zirkulazioa lanetarako eremuan, lanak exekutatzearen ondoriozko balizko arrisku-puntuak, bai eremu horretan bertan, bai haren mugetan eta inguruetan, eta Administrazio Klausula Orokorren Agiriko 23. klausulan aipatzen diren aginduak bete behar ditu.

Baimenak eta lizentziak

Enpresa adjudikaziodunak udal-baimen guztiak kudeatu beharko ditu, obrarako udal-lizentzia izan ezik, aldarmioak, pasabideak, hesiak jartzeko, harguneetarako galtzadak irekitzeko, eta abarretarako, eta haren kontura izango dira, oso-osorik, nola tasak, hala horien kudeaketak dakartzan gastuak. Udalak obretarako udal-lizentzia gisa fakturatutako zenbatekoa soilik geratzen da aurreko gastutik kanpo, hala badagokio.

Era berean, bere gain hartuko ditu beste erakunde batzuen —hala nola Foru Aldundiaren— baimenak izapidetzeari dagozkion gastu guztiak —adibidez, abalak—, bere eskumeneko arloetan jazotako gurutzaketak eta/edo jarduketak direla-eta.

Baloratutako zerrendak

Kontratistak proposatutako hileko zerrenda baloratuak PRESTO programan aurkeztu beharko dira, eta, programa hori ez badago, BC3 formatuan aurkeztu ahal izango dira.

KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

Enpresa adjudikaziodunak jarduteko eta/edo enpresaren ordezkari izateko gaitasun nahikoa duen ordezkari bat atxiki beharko dio obra honi, kontratuaren harremanei eragiten dien gudian.

Ordezkar horrek eta enpresaren adjudikaziodunaren agindupean dauden langileek ez dute Partzuergoarekin harreman juridikorik izango, ez eta lan-harremanik edo bestelakorik ere, ez kontratua indarrean den bitartean, ez kontratuaren amaieran.

Lizitatzaillearen eskaintzan obrako gainerako langileekin gertatutako edozein aldaketak —dedikazioa barne hartuta— obra-zuzendaritzak behar bezala justifikatu eta onartuta egon beharko du. Aldaketarekin desadostasunik egonez gero, edo eskaintako ekipoari buruz ezarritakoa ez betez gero (obrari esleitutako pertsonen kopurua, eskaintako kualifikazioa eta dedikazioa), 1.000 euroko zehapena ezarriko da egun



bakoitzeko (hileko ziurtagiritik deskontatu beharko da). Obra-zuzendaritzak eskatuta eskainitako ekipoa obran behin eta berriz ez erabiltzea kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da.

LIZITATZAILEEN GALDEREN TXANDA

- Eskaintzak aurkezteko epean, galdera-txanda bakar baten aukera izango dute lizitatzailleek.
- Galderak idatziz egin beharko dizkiote BBUPi, Kontratazioko Departamentuari zuzenduta.
- Lizitazioa argitaratzen denetik aurrera aurkeztuko dira, eta argitaratu eta hiru asteko epean jasotzen direnak onartuko dira.
- BBUPek idatziz erantzungo die egindako galdera guztiei, eta eskaintzaile guztiei jakinaraziko dizkie.